

**1/2018 GOMENDIOA, APIRILAREN 11koa, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-
BATZORDEARENA.****HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZU ZUZENDARITZAK EDO KUDEAKETA
EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO
ZUZENDARITZAK.****XEDEA: KONTRATU TXIKIAK, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGE BERRIAREN
ARABERA**

Aholku Batzorde honen Idazkaritza Orokorrak gai honi buruzko hainbat kontsulta jaso ditu. Gainera, kontuan hartu da Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontrataziorako Aholku Batzordeak (3/2018 txostenean) eta Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordeak (41/2017, 42/2017 eta 5/2018 txostenetan) emandako erabakiak ez datozela bat. Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela Gomendio bat egitea, irizpide bakar bat ezartzeko balio dezan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan ez dadin egon ezberdintasun nabarmenik kontratazio-organo batzuen eta besteen artean.

Gauzak horrela, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legea aztertu da (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean, SPKL). Bada, 9/2017 Legearen 118. artikulua hainbat gai planteatzen ditu, eta jarraian adierazi den bezala ebaztea gomendatzen dugu. Hala ere, hurrengo paragrafoetan "behar" hitza erabili da legeak hala agintzen duelako; beraz, gomendio hutsa baino gehiago dira alderdi horiek.

a) Espedientean **kontratazio-organoaren txosten bat** egon beharko da, kontratua egiteko **beharrizana** arrazoituz. Beharrizan horren barruan, justifikatu egin beharko da kanpora atera behar dela bitarteko material edo giza baliabide nahikorik ez dagoelako, interes publikoak babesten duela beharrizan hori, eta aipatutako interesa ezin dela bete indarrean dagoen beste kontraturen baten bitartez.

b) Era berean, espedientean **justifikatu beharko da ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari** kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko. Argi eta zehatz definitu beharko da xedea, **zergatia** eta **gaia** azalduz; gainera, justifikazio horretan **zehatz aipatu beharko da** zein izango diren kontratuak ekarriko dituen **lanak, eta** zein **denbora-epetan** jardungo den. Epea inoiz ez da izango urtebete baino gehiagokoa, eta ezin izango da luzatu, SPKLk 29.8 artikuluan adierazitakoa betez.

Lanak definitu eta behar bezala betearazten direla kontrolatzeko ardura duen pertsonak egin eta sinatu beharko du **justifikazio** hori.

c) Gauzak horrela, **segidako traktuko kontratuak, edo guztira hamabi hilabete baino gehiagoko epeak dituzten aldizkako errepikapeneko kontratuak**, nahiz eta batzuetan zenbatekoa oso txikia izan, **ez** dira hartuko ondoz ondoko aurrekontu-ekitaldietan xede berarekin lizitatu beharreko kontratu **txiki** gisa. Guztizko balio zenbatetsia hartu beharko da kontuan, eta kontratu bakar batean bildu; kontratu horren iraupena, gehienez, kontratu motaren arabera (zerbitzuak, hornidurak...) ezar litekeena izango da, betiere arrazoizkoa bada alda litezkeen inguruabarrak kontuan hartuta. Era berean, bermatu egingo da **publiko egin** ahal izatea. Horrela egingo da, nahiz eta aurreuposatu adjudikaziodun ezberdinak izan litzakeela (sortak ezartzearen bidez egin daiteke).

- d) Era berean, **justifikatu** egin behar da **kontratistaren sozietate-xedea edo jarduera ekonomikoa** (erantzukizunpeko deklarazioaren bidez aurkeztu beharko du, edo Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean duen inskripzioa aipatu) **bat datorrela kontratuaren xedearekin, eta kontratazio-organo horrekin ez duela sinatu bestelako kontratu txikirik banaka edo multzoka** 118. artikuluan kontratu txikietarako ezartzen den gehienezko kopurua **gaindituz** (40.000 euro baino gutxiagokoa obra-kontratuetan eta 15.000 euro baino gutxiagokoak zerbitzu eta hornidura-kontratuetan. Nolanahi ere, kontratuaren balio zenbatetsia da hori).

Artikuluaren hirugarren apartatuan “kopuru” hitza azaltzen denez, ondorioztatu da beste kontraturik sinatu ez izanaren muga ez dela erabatekoa, eta kontratu mota bakoitzari dagokiola (obrak, zerbitzuak, hornidurak), horien arabera ezarri baitira kopuruak. Bestela, ez litzateke ulertuko artikuluaren 3. apartatua.

- e) Kontratazio-organoak pertsona fisiko edo juridiko berari adjudikatzeko duen debekuaren **denbora-muga** bi kontratu txikirena izango litzateke, hau da, **urtebetekoa**. Gainera, **aurrekontu**-ekitaldi edo -urte gisa ulertu beharko litzateke. Gastua onetsi aurreko hamabi hilabeteetan jarduteko aukera ez da egingarria Administrazio honetan; izan ere, Legea kontuan hartuta, kutxa finkoko aurrerakinekin (edo aurreratutako funts arruntekin) ordaindutakoak ere kontratu txikiak dira, baina salbuetsita dute hiru hilabetez publiko egitea. Hau da, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean behin baino ezin izango da kontratatu kontratista bakoitzarekin kontratu-mota edo -xede bakoitza, arestian zehaztutakoaren arabera. 2018. urte honetan, kontratu txikirik sinatu bada Gomendio hau eman baino lehen, eta motaren arabera adierazi diren kopuruak lortu badira, ezin izango dira berriro egin, d) apartatuan ezarritakoaren arabera, aurrekontu-ekitaldia amaitu arte.

Urte anitzeko kontratu txikiak direnean kontuan hartu behar den denbora-erreferentziari (urtea) dagokionez -beti gehienez 12 hilabeteko mugan, argi dago-adjudikazioa ebatzi den urtea hartuko da kontuan. Hau da, kontratu bat X urtekoa

bada baina X eta X+1 urteetan exekutatu bada, X urtean zenbatuko da balio zenbatetsiaren guztizkoa, d) atalean aipatutako gehieneko kopuruei dagokienez.

- f) 118. artikulua 3. apartatuak lehenengo paragrafoan dio “**Kontratazio-organoak egiaztatuko duela** arau hori bete egiten dela”. Egia esan, bi arau dira paragrafoak biltzen dituenak (justifikatuko da **ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari** kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, **eta kontratistak ez duela izenpetu kontratu txiki gehiagorik** kontratazio-organo berarekin arestian aipatutakoaren arabera). Gomendatzen da kontrol hori **azken memoria** batean biltzea, **kontratazio-organoak sinatuta, edo, bestela, hasierako txostenean, alderdi biak egiaztatu ondoren**, zehatz adieraziz enpresaren **sozietate-xedea** edo pertsona fisiko kontratistaren jarduera ekonomikoa bat datorrela kontratuaren xedearekin.